

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

Hutsen zuzenketa, 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146. zenbakian) argitaratutako 2022/3448 iragarkiarena, zeinaren bidez hautaketa oinarriak eta deialdia argitaratu baitziren egiturazko plaza hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan

2022ko abenduaren 21ean, asteazkena, ALHAOren 146. zenbakian, 2022/3448 iragarkia argitaratu zen (eta horren akatsen zuzenketa 2023ko urtarrilaren 25eko ALHAOn argitaratu zen, 10. zenbakian, 2023/131 iragarki zenbakiarekin). Haren bidez, zenbait plaza betetzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak eta deialdia argitaratu ziren, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan (lehendakaritzaren ebazpen bidez onetsita).

Oinarri orokorrak argitaratu ondoren, akats bat aurkitu da haietan:

7.2 oinarrian, honako hau dioen lekuan:

Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da hautagaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatu eta autobaloratzen diren merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu gero, edo, hala badagokio, hautagaiek alegatutako merezimenduak egiaztatu eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Hau esan behar du:

Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da hautagaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean alegatu eta autobaloratzen diren merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu gero, edo, hala badagokio, hautagaiek alegatutako merezimenduak egiaztatu eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Luzatzen da eskabideak aurkezteko epea, eta berriro hasiko da hogeita hamar egun balioduneko epea kontatzen, ebazpen hau Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hargatik eragotzi gabe hasieran onetsitako epearen barruan interesatuek aurkeztutako eskabide guztiak mantentzea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2023ko maiatzaren 9a

Lehendakaria

RUBÉN RUIZ DE EGUINO LÓPEZ DE GUEREÑU